

## Euskara batua ala-eta euskara zuzena?

Jose Luis Aizpuru

Euskal Irratiak sareko erredaktore burua

Paulo Arzeluz *kaskogorrek* gaia proposatu zidanean, -artetik erraiteko behin baino gehiagotan-, ahalik eta zurrunen eta lehorren erantzun nion, konturatu zedin, mintzalari baino entzule izan nahi nuela. Baina gizona tematu zen: “irratiek bagenuela zer erraitekorik, hots, euskararen sozializazioan protagonista aktiboak ginela”, hots, --eta nik gehitzen dut hau-, gure kulpak ere baditugula....*ni bekatari* kantatu dezaket hemen, baina ez dakit ekarpen interesgarria izanen denez hori.

Izan ere irratiak 1982tik dira martxan eta euskararen normalizazioan tresna ezinbestekoak izan dira. Begibistakoa da hori. Seaska izan baldin bada euskaldunak sortzeko tresna garrantzitsuena, euskararen transmisioan irratiek egin dutena ukalezina da. Eta Ipar Euskal Herriko euskal komunitatearen ispilu izan direla gehituko nuke.... batzuetan ispilu sobera hurbilekoa ere....

Entzun besterik ez daude duela 40 urteko grabaketak. Berehala konturako gara nola aldatu den gure hitz egiteko modua irratietan, hiztegiaren aldetik batez era. Nola aldatu den terminologia, zenbat hitz berri sartu diren gure egunerokoan: euskara nola aldatu den.

Paulok gaia proposatu zidanean, irratikoa ez den kazetari euskaldun bati afera aipatu nion. Zera erantzun zidan berak: “uff gerla duk gai hori!!!”

Eta gure irratietan ere gerla gisara sentitzen dute gai hau zenbaitzuk, bai irratilari, laguntzaile, administrari edo entzule izan, hots, euskara batuaren gaia, nortasun galtze gisara

sentitzen baitute, zenbaitzuk. Horregatik erran nion Paulori ..... Euskaraldiko *belarri prest* txaparekin lasaiago nintzatekeela, *ahobizi*-renarekin baino.

Euskara-batua terminoa entzutean, zenbaitzu, urduri jartzen dira, eta hori ukaezina da. Uniformizazio gisara sentitzen dute batua edo *hegoalde*tik heltzen zaien euskara *hori* dela jakinarazten dute, *berena* ez den zerbait, "Euskal Telebistan ikusten dugun hori". Batzuk..., ez nik, hemen ez baitut hitz egiten irratien izenean, argi gera bedi hori. Zeren bi gai badira mahai gainean: batetik, euskara batuan mintzatu eta idatzi behar dugunez irratietako uhinetan eta webguneetan, eta bestea, euskara zuzena baliatzen dugunez. Eta batua edo ez-batua eztabaidaz gain, hemen garrantzitsuena da euskara zuzena baliatzen dugunez. Eta hor bai, *ni bekatari* kantatzeko prest naiz.

Beraz "nortasun" galtze sentimendu horren parean, irratilariei uzten zaie bakoitzak *berean* hitz egin dezan. Izan daiteke euskalkian, eta zenbaitzutan *sukalkian* ere... Entzuleak sendi dezan *hurbil* garela... hurbiltasuna baita irrati hauen izatea eta izerdia. Eta beraz xiberutarrek xibereraz mintzatzen dira mikroan; baxanafartarrak baxanafartarreraz, eta laputarrak,... ikastolan ikasitako iparraldeko batuan... baldin badago, bederen, Iparraldeko baturik.

Artetik errateko, ene alaba Etxepare lizeoan ari da Lizeoan, Hendaian sortu eta hazia da, eta lizeoko ikasleekin mintzatzen denean, barnealdekoekin batez ere, "ahhh badakizu *iparralderaz* mintzatzen " entzuten omen du. Iparraldera! Hitz berria.

Izan ere gure alaba bere Hendaiaiko lagunekin *hegoalderaz* mintzatzen omen da, bere lagun berrien arabera; batua hitza ez dutela baliatzen erran dit.

Bigarren pasarte bat ere kontatu nahiko nizueke gure gaiarekin lotura duena: euskararen zuzentasuna irratietan bermatzeko xedez, Ipar Euskal Herriko euskaltzain batengana jo nuen garaian. Laguntza behar genuela gure akatsak atzemaiten eta zuzenketak behar genituela. Hau izan zen bere arrapostua: “Euskaraz ari bazarate, ongi da”. Beraz gure bekatuak barkatuak izan ziren..., Alta, jabetzen naiz euskararen transmisioan dugun erantzukizuna ikaragarria dela, batez ere euskaldun berriekiko, eta hor gure zabarkeria barkaezina dela. Hala ere urratsak emateko nahikeria badugu, eta hasiak gara gure bide luza lantzen.

Baina aitor dezagun ere horrelako eztabaidak ez dituztela izatean hizkuntza hegemonikoetan. Gurea bezalako hizkuntza gutxiagotueta mintzalariok ditugu horrelako burukominak. Prestigiorik gabeko hizkuntzek, eta, normalizatu gabekoetan. Eta Ipar Euskal Herrian are eta nabarmenago da hau, hizkuntzaren egoera biziki larria delako. Frantsesak dena ziprizzintzen duelako, euskaldunen arteko harremanak ere... eta euskararen kalitate maila apaltzen ari dela begibistakoa da, erabilera apaltzen den heinean. Hori ederki ikuste dugu irratietan, egunero, batz best berrogeitamar pertsona ezberdin mintzarazten baiditugu gure bost irratietako uhinetan.

Baina euskal komunitatean sinesten badugu eta etorkizuna nahi badugu gure hizkuntzarentzat ezinbestekoa dugu hizkuntzaren estandarizazioa. Bere funtzioa izanen du hizkuntza estandarrek, eta, euskalkiak, edo *sukalkiak* berriz beste bat. Elkarren osagarri dira, eta inolaz ere ez, elkarren kontrajarri. Eta noski, zazpi probintziez osaturiko euskal komunitate linguistiko bateko kide garelara sinesten badugu hizkuntzaren estandarizazioa behar-beharrezkoa dugu.

Gai hau adibide batekin ilustratu nahiko nuke. Aste hondar honetan Bilbon ELENeko kongresua izan da. Europako hizkuntza minorizatuen elkarte da ELEN. Lehen aldikotz siziliar talde bat etorri da ELENERa, beren hizkuntzarentzat eredu estandar bat

xekezten baitute, normalizazioaren bidean. Siziliar-batu bat eskas baitute.

## **Formakuntzaren beharra**

Euskal Irratien sarean formakuntzak egin izan ditugu euskararen zuzentasunaren harira. Badira euskarari buruzko oharrak egiten dizkiguten entzuleak ere. Denen lana eskertzen dut, baina behar duguna da euskara zuzentzaile talde finko eta jarraitu bat. Euskal hedabide nagusiek dituzten hein berekoak. Irizpide argiekin eta hedabideetara egokituak.

Euskalkiak ez ditugu ahozkoetasunetik desagertarazi behar irratietan, eta ez dugu eginen ene ustez. Hor bada lotura sentimental bat ere erranen nuke, ahozkoetasun bizi bat.

Aldiz, idatzizkoan gogoeta sakona egite bidean gara, webgune berria sortuko baitugu fitesko, eta hor ainitz idatziko baitugu, eta idatzizko forma estandarrak gaina hartu behar duela iruditzen zait. Badira adibideak: Xorroxin irratia euskalkia baliatzen du, aldiz [erran.eus](http://erran.eus) idatzizko plataforman euskara estandarra baliatua da

Herria-n ere Xarles Bidegainek edo Mixel Itzainak baliatzen duten euskara, batetik hurbilago dela, lapurtar-baxenabartarretik baino....